


I g e l d o k o

ORRI

6. zenbakia
1999ko azaroa

INFORMATIBOA

Igeldoko Herri Kontseilua
Itsas Aurre Kultur Etxea
Kristobal Balenziaga kalea 110
Tfnoa.: 943-313030 • IGELDO



Etxebizitza kooperatiba sortzeko deialdia

Urtea bukatu aurretik, Igeldoko Plan Partziala onartuta egongo dela ziurtatu dute Udal teknikariek. Plan Partzial horren arabera, hirurogeita hamalau etxebizitza eraikiko dira Igeldon, hauetatik berrogeita zortzi babes ofizialekoak.

Etxebizitza horiek igeldotarron esku gera daitezten, kooperatiba sortu nahi da. Herri Kontseilua lanean hasi da eta kooperatiba abian jartzeko lehen urratsa eman du: baldintzak jarri ditu, igeldotar guztion artean izena emateko eskaera orriak Orri Informatibo honekin batera banatu ditu, eta urtea bukatu aurretik izenak jasota egongo dira

Hau guztia egiteko, Herri Kontseiluak Esarbe enpresaren aholkuak jarraitu ditu. (Esaarbek mota honetako obra asko aurrera eraman du: Azkoitia, Irun, Getaria, Zumaia...)

Enpresa hau igeldotarren eskara orriak jasotzeaz arduratuko da, eta Herri Kontseiluaren laguntzarekin, Kooperatibarako baldintzak betetzen dituzten pertsonak zein diren ikusiko du.

Igeldon bizi eta etxebizitarik ez duen jendearen alde egin nahi izan da baldintza horiek jartzerakoan. Hau, batez ere babes ofizialekoetan egin da. Bigarren mailan utzi dira igeldotarrak izan arren, azken urte-

etan Igeldotik kanpo bizi direnak. Bestalde, lurjabeak ere kontuan hartu behar izan dira, lursailarik gabe ez baitago etxerik.

Hemendik aurrera egin beharreko lana definitu gabe dagoen arren, hurrengo urratsak aurreikusi daitezke: Kooperatibaren estatutuak egin, kooperatiba legez sortu, lurjabeekin eta Udalarekin harremanak eduki...

prozesua gidatu alegia.

Behin Kooperatiba sortu eta gero, bertako kideek erabaki behar dute nola aurrera egin. Kontuan hartu behar da noski, Udalaren eta lurjabeen jarrera prozesu honetan. Guztien arteko adostasuna lortzea da helburua. Herri Kontseilua laguntzeko prest dago, baina interes dutenen garaia iritsi da.



Frontoia nola itxi azken eztabaida

Martxoan kaleratu genuen azken Orri Informatiboan aurreratu genuen Udala lantzen hasiko zela frontoia ixteko proiektua urte honen bukaeran. Herri Kontseilua bildu da dagoeneko Jesus Barreiro Lan eta Proiektuen arduradunarekin, eta aurreikusten zen bezala Udal teknikariaren iritzia ez dator bat Herri Kontseiluarenarekin.

Egiteko dagoen bigarren fasean Donostiako Udalak ez zuen aurreikusita frontoia ixtea. Denborarekin, konturatu dira frontoia ixtea ezinbestekoa dela eta lehen jarritako sabaiak ez duela ezertarako balio (Bestela galde diezaiela pasa den larunbatean frontoian esku pilotan jokatu nahian ibili zirenei).

Ditxosozko errebotea

Behin erabaki hori hartuta, gainerakoan ez dago erabateko adostasunik. Udal Teknikariek frontoia iparraldetik ixtea onartu dute baina horretarako nahitanahiez errebotea zuzendu behar dela diote.

Errebotea zuzentzeko frontoiari kuadro-kuadro térdi kendu behar zaio. Hori eginda, frontoiari jandako tokian aldagelak (komunak eta dutxak) jarri nahi dituzte.

Herri Kontseiluak ez du inondik inora onartzen proposamen hori. Herri Kontseiluaren iritziz, frontoia ezin da txikiagotu (gehienez koadro erdi bat?) eta errebotea zuzentzekotan, errepide aldera egin behar da. Beraz, igeldotarron iritziz, zati horretan komunak edo aldagelak jartzea baino askoz hobe da errebotea errepidearen mugaraino eramatea.

Eta Lizardi aldean zer?

Mendebaldeari (Lizardi) dago-kionez ere, bada ika-mika. Udalak ez du erabat itxi nahi alde hori, Lizardirekin bat egin dezan. Sabaia

eusteko posteak edo zutabeak abiapuntua izanik, hiru metrotik gora ixtea nahi du ia boskarren koadrotik erreboteraino. Beraz, lurretik hiru bat metrora itxi gabe geratuko litzateke tarte horretan. Boskarren koadrotik aurreko hormaren pareraino aldiz, azkoz irekia-go geratuko litzateke: Sabaiatik behera, hiru metro besterik ez lirateke babestuko

Herri Kontseiluak ez du bat egin asmo horrekin. Herri Kontseiluaren iritziz hobe da zutabe edo posteak dauden tokitik baino atzeragotik istea alde hori, txapela edo sabaia bukatzen den lekutik alegia. Horrela, leku gehiago geratuko litzateke babesean. Bestalde, eta batez ere boskarren koadrotik hirugarren koadrora, tarte handiegia

geratuko litzateke itxi gabe. Hori behintzat hobeto babestea eskatzen du. Dena den, irtenbide egokiena beste bat dela uste du Herri Kontseiluak. Tarte horiek betirako zabalik utzi baino, hobe dela ireki eta isten den mekanismo bat jartzea. Horrela ez litzateke etengo Lizardirekiko lotura, eta eguraldi txarrarekin baino ez litzateke frontoia erabat itxiko.

Bestalde, Herri Kontseiluak haramailen azpia ustu eta tresnak uzteko biltegi bat eraikitzea proposatu du. Ez dirudi oraingoz, eskaera hori ere begi onez ikusten dutenik Donostiako agintariek.


Kontuak kontu, bilerak hasi besterik ez dira egin eta ikusteke dago Udal teknikarien erabakia eskaera hauen aurrean.



Zaharren eguneko kontuak

Irailaren 26an antolatu zen Zaharren eguna. Eguraldia lagun izan genuen eta nahiko giro ona izan zen: jende asko bildu zen Herri Kirolak eta pilota partiduak ikusteko.

Iaz baino jende gutxiago etorri zen eta antolakuntza lanetarako ere jende berria ez zen animatu. Datorren urtean izan beharko du!



SARRERAK

Kutxa :	20.000 pezeta
Rifak:	60.400 pezeta
Txartelak:	107.500 (43 x 2.500) eta (10 x 1.500)
Guztira:	202.900 pezeta

IRTEERAK:

Papera, jaboia:	675 pezeta
Puruk:	1.400 pezeta
Toalla:	3.900 pezeta
Opariak:	16.650 pezeta
Bertsolariak:	40.000 pezeta
Ura:	2050 pezeta
Ogia:	1.725 pezeta
Patxarana:	1.000 pezeta
Hamaiketakoa:	10.000 pezeta
Mariskada:	16.000 pezeta
Rifak, gonbidapenak:	22.500 pezeta
Guztira:	383.900 pezeta


Zorra: 181.000 pezeta (Herri Kontseiluak egingo dio aurre zorrari)

Euskadiko Kutxaren laguntza kobratzeko dago oraindik.

San Pedro festetako kontuak

SARRERAK:

Programa eta publizitatea:	198.000 pezeta
Txartelak:	528.000 pezeta
Herri Afaria:	182.500 pezeta
Dirulaguntza (lehen zatia):	454.000 pezeta
Sobreak (jendearen laguntza):	287.000 pezeta
San Juan eta Santa Ixabel:	298.100 pezeta
(Koadrilak emandako dirua).	
Guztira:	1.947.600 pezeta



IRTEERAK

Haurren merienda:	35.000 pezeta
Kirolak:	66.300 pezeta
Suziriak:	21.000 pezeta
Idi eta zaldi demak:	170.000 pezeta
Musika:	730.000 pezeta
Herri Afaria:	130.000 pezeta
Bertsolariak:	120.000 pezeta
Txekorra (mantenua):	25.000 pezeta
Txartelen saria:	175.000 pezeta
Trofeoak:	82.900 pezeta
Argia:	75.000 pezeta
Publizitatea eta programa:	252.700 pezeta
Gorriti:	50.000 pezeta
Txapelak:	30.000 pezeta
Toldoak:	15.000 pezeta
Bestelako erosketak:	25.000 pezeta
Guztira:	2.094.800 pezeta

Zorra: 147.200 pezeta

Herri kontseilua berritzeko zain


Aurtengo Udal hauteskundeekin batera, Herri Kontseilua berritzeko asmoa zegoen. Hala erabakita zegoen, Herri Kontseilua bera eratu zenetik. Dena den, ordezkari berriak aukeratzeko hauteskundeak atzeratu egingo dira ikusita Donostiako Udala deszentralizazio proiektu bat lantzen ari dela Igeldorako.

Udalak Zubietak egun duen antzeko sistema nahi zuen Igeldorako. Gai honi buruz, bizpahiru bilera izan zituzten Herri Kontseiluko kideek aurreko Gobernu Batzordeko ordezkariekin. Hauteskudeen ondoren, abertzaleak Gobernu Batzordetik kanpo geratu eta PP sartu denez, deszentralizazioaren gaiari ez zaio heldu. Udal ordezkari

berriekin bilera izan du Herri Kontseiluak duela gutxi eta deszentralizazioa lantzeko asmoa duela berretsi dute Udal agintariek.

Hiru urteko ibilbidea

1.996ko martxoaren 17an egin ziren Herri Kontseiluko ordezkariak aukeratzeko hauteskundeak. Hogei lagunek osatzen dute; hamabost zonaldeka aukeratuak izan ziren (Mendi aldea, Ibaeta aldea, Gorostilapabide, Ondasarte-Marabieta, Leku-Eder-Zingieta, Etume, Gudamendi- Gure Kaiola, Benta Alegre-Etxeberriak, Plaza-Iturrieta eta Amezti-Buenabista) eta gainontzeko bostak sektoreka: jubilatuek, gazteak, baserritarrak, eskola eta



ekoizpen arlokoak.

Herri Kontseiluko kide guztiak hilean behin biltzen dira Itsas Aurren. Dena den, maizago biltzen den talde bat ere bada, talde koordinatzailea izena duena, eta Herri Kontseiluak hartutako erabakiak bideratzeko ardura duena.

Bestalde lan batzorde batzuek ere lanean dihardute: kultura, urbanismoa eta abar. Hiru urte bete ditu Herri Kontseiluak eta orain arte nahikoa ondo bete du bere lana.

Postariaren oporren beldun

Urrian hartu ditu Bladik oporrak eta posta bana-keta tamalgarria izan da. Joan den urtean ere arazoak izan ziren, baina aurtengoa negargarria izan da: bada bi edo hiru asteetan gutun bakar bat ere jaso ez duena.

Herri Kontseiluak kexa helarazi zion Correos enpresari. Aurtengoak ez du konponketarik, datorrenean beharko. Opor motzak egingo zitzaizkion Bladiri, igeldotarro berriak, ikaragarri luzeak. Ondo ordainduko ahal diote behintzat!

Herri Bideekin ere arazoak

Donostiako Udalak hiru herri bidetan porlana botatzeko asmoa du: Borda-Barrenetxe lotzen dituen bidea, Etxe Nagusi aldetik Pilotegi bidera doana, eta Etumetxabaletik Pokopandegira doana.

Herri Kontseiluaren iritziz, bide hauetan porlana bota baino askoz hobe litzateke lehendik asfaltutako konponduko balituzkete, premia egon badago eta. Harremanetan daude Herri Kontseilua eta Udal teknikariak, baina azken hauek egoskortuta daudela dirudi eta hiru bide hauek egin nahi dituzte nola edo hala.



Igeldoko Herri Kontseilua